



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2008-05-02**

VIURTEA 1.423.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Edurne Pasabanek 10. zortzimilakoa lortu du, Dhaulagiri gailurrera igota

TOLOSA Asier Izagirre tolosarrarekin batera Himalayan dagoen 8.164 metroko tontorrera atzo goizean iritsi zen

IGOERA «Uste baino luzeagoa eta gogorragoa» izan zela aitortu dute; «haizeak ere gogor jotzen zuen» 6



Atzoko jolasetan, aurpegiak margotu zizkieten gaztetxoek. N. URBIZU

Ekitaldi ugari antolatu dituzte Gaztetxearen IX. urteurrenean

ANOETA Gaur mendi martxa egingo dute goizean; gauean EH Sukarraren kontzertua izango da 6

SABRINA OTEGUI ETA ELVA MOCOROA ARGENTINARRAK

«Tolosara joatea oso hunkigarria eta, aldi berean, gogorra izan zen»

TOLOSA Tolosar jatorria dute biek; euskara ikasten ari dira Maizpide euskaltegian 4-5



Ganadua larreetara eraman zuten atzo Larraitzen, jendetzaren aurrean eta jai giroan. MAIDER DEL OLMO/GOIERRIKO HITZA

ARALARKO LARREETAN GIRO EPELAREN BILA

ABALTZISKETA Eguzkiak apaindu zuen atzo Larraitzen Enirio Aralar Mankomunitateak antolatutako larre irekieraren festa 7

Z Zurea da hitza 

Atal honetan zuen keaxak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldeko-hitza.info' webguneko 'zurea da hitza' atalean; e-mailez, tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidean eta telefonoz, 943 655695 zenbakian.

Giro bikaina pilotaren inguruan

Bada hamabostaldi bat Ibarrako Belabieta pilotalekua inoiz baino dotoreago jantzen dugula. Pilota-Aniztasuna elkartearen proiektuaren barne dauden Uzturpe eta Laskorain ikastoletako eta Hirukide eta Samaniego ikastetxeetako pilotari gaztetxoak gogor ari dira larunbat arratsaldeetan antolatutako partidua jokatzeko. Hala ere, badakigu haur eta gaztetxoek ilusioa eta gogoia jartzeko erraza dela.

Lerro hauen nahia bestelakoa da. Pilotalekura gerturatutako ikusleen, eta batez ere gurasoen jarrera goraiatu nahiko genuke. Haurrek jasotako txalo zaparradek, animoek eta oihuek, ikus kizuna festa bihurtzen dute, pilotalekuari itxura ederra emanez.

Jarrai dezagula, beraz, giro honetan euskal pilota indartu eta sendotzen.

Mila esker pilotalekuan halako giroa sortzen laguntzen duzuen guztioi.

Koldo Rabadan Izagirre eta Mikel Beloso. (Pilota-Aniztasuna elkarteak kideak)

B Blogteka **Liburu eguna ospatzen**

Gure ikastetxean bada programa bat Ulibarri izenokoa. Ez dakizula zer den? Bada, euskararen erabile- ra bultzatzeko eskolak duen programa bat. Hala, ekintza, ospakizun eta jolas ugari egiten ditugu.

Apirilaren 23an, adibidez, Liburuaren Nazioarteko Eguna zela eta, liburuak irakurriz ospatu genuen Arratzainen. 10: 40 aldera adin desberdineko bi lagun bildu,

eskolako txoko batean eseri eta elkarri liburu bat, edo zatitxo bat, irakurri zioten. Liburu eguna ospatzeko, gure txikiak bisita polita jaso dute.

Ipuin kontalaria, ikasle guztiei ipuinak kontatu dizkie, haurrak poz-oz egon dira.

Kontalaria gure eskolako ama da, Laura, berak izugarriko gogoia jarri dio.

Doctor Fleming ikastetxea

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/fleming>

Euskararen desagerpena**» Kale kantoitik**

Joxemi Saizar

A maitu dugu historia ikastaroa. Bizi garen eremu honetan historiaurretik karlistadak bitarte gertatutako hainbat kontu azaldu dizkigute zortzi hitzalditan zehar historia aditu jatzuk. Hemendik pasatu diren jendeen berri jaso dugu, beraiek egindako gauza on eta txar guztiekin. Asko izan dira historian zehar. Ikastaroa bukatzeko, euskararen desagerpenaren historia azaldu ziguten, mendez mende eta lurraldez lurralde, baita Errioxa, Burgos, Aragoi eta Akitanian ere. Estatuek eta eraso militarrek euskararen murriztapena ekarri zuten nafar (euskal) estatua desagertu arte. Borondatea ez da nahikoa euskara bizirik irauteko. Estaturik gabe, etorkizuna duen hizkuntzarik ez omen dago munduan. Ondorio horretara iritsi zen hizlaria. Eta latina, hebraiera eta irlandarraren adibideak aipatu zituen.

Ondo etortzen da tarteka gure oroimena frexkatzea. Ez dugu ahaztu behar nondik gatozen, nora joan jakin ahal izateko. Egunerokotasunean sartuta gure erroka ahaztu eta alde batera uzten ditugu maiz. Gure ahalegin indibidual edo kolektiboez gain, beste zerbaite gehiago ere behar dela argi dago. Aurrekoak irakasten du ondorengoa nola dantzatu.

Beharrezkoak dira oraingo hau bezalako ekimenak. Datorren urterako jarraipena iragarri du antolatzaile izan den Lizardi kultur elkarteak. Zain geldituko gara.

G Gutunak**Galdutako aukera**

Duela egun batzuk, Tolosako Udalen Osoko Bilkurak Hiri Ordenazioko Plan Orokorra behin-behingo onartu zuen. Gure udal taldeak, hala ere, baditu hainbat kezka plan horri buruz.

Etxebizitzaren arazoari buruzko alderdi inportante batzuk arautzeko aukera egon da eta ez da aprobetxatu gure iritziz.

Plan Orokorra udalerrian dagoen etxebizitza-beharra estimatzeko ez ditu kontuan hartu Tolosan hutsik dauden etxebizitzak. 2.250 inguru etxebizitza berri egiteko aukera egongo da eta etxebizitza hutsak merkaturatu jartzeari buruz aipamenik apenas. Gobernu Batzordeari galdera argia egiten diogu: neurririk hartu behar al du Tolosan dauden etxebizitza hutsei buruz?

Bestetik, gaiarekin asko tematu garen arren, Plan Orokorrean ez da ezer jasotzen babes ofizialeko etxebizitzetan alokairua bultzatzeko asmoez. Esatea badute Plan Orokorra ez dela tresnarik egokiena egoera hori arautzeko, baina Ezker Batua-Aralarren ustez, administrazioek tinko bultzatu behar dituzte babeseko alokairua eta hori Plan Orokorrean argi eta garbi jasotzea aurrera pauso inportantea izango litzateke.

Plan Orokorra tramitatzen joan den heinean, Alde Zaharrari buruzko jarrera oso garbia izan dugu. Parte Zaharra biziberritzeko plan- teamendu erreala eta ez-demagogikoak egin ditugu: Laskorain Goikoan sortuko diren plusbalioak Alde Zaharra biziberritzeko usatzea. Plan- teamendu hori ez da Plan Orokorrean jaso, nahiz eta

Gobernu Batzordeak, itxuraz, bere egin dituen.

Etxebizitzaren arazoaz gain beste batzuk ere badaude. Amaro- zko paper-fabrikaren egoerari eman zaion irtenbidearekin ados gauden arren, gertaera horrek udalerriko espazio libreen konfigurazioan aldaketa ekarri du. Konfigurazio berriak legea betetzen du, baina, gure ustez, planteatzen diren espazio libreek nekez beteko dute beren funtzioa dauden tokian daudelako. Gainera, Plan Orokorrean lurzorua industrialaren auziari, bide batez Amaro- zko operazioarekin urritu dena, irtenbide argirik ez zaio ematen Tolosako udalerraren barrutian.

Halaber, Amaro- zko egoera berriak justifikaziorik gabe uzten du San Blas eremuan proposatzen den lurzorua kalifikazioaren aldatzea. Ezker Batua-Aralarren

ustez eremu horrek oraingo kalifikazioarekin jarraitu behar du eta etorkizunean, hurrengo plan orokorren batean, aldatuko da kalifikazioa beharrezkoa ikusiz gero.

Azkenik ez zaigu bidezkoa iruditzen Plan Orokorrean ingurugiro- inaktuaren azterketak aipamenik ere ez egitea Abiadura Handiko Trenaren inpaktuez. Obra horrek inpaktuak izango ditu Olarrain eta Laskorain Goikoan, ezta? Ala bertako jendeak itsua eta gorra izango al da inpaktu akustikoak eta bisualak ez noizteko?

Ezker Batua-Aralar udal taldeak uste du behin-behingo onartu den Hiri Ordenazioko Plan Orokorra ezin duela babestu, aukera galduta izan baita.

Inaki Irazabalbeitia. (Tolosako EB-Aralar udal taldea).

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)

Aurtengo negua San Sebastian ermitan eman ondoren, orendaindarrek eliza inauguratu zuten joan den hilean. Elizkizunetara bildu zirenek, Juan Maria Uriarte Donostiako gotzaiarekin batera, meza eta hamaiketako eder batekin ospatu zuten, martxoko lehen igandea.

Hasieran egindako aurrekontua motz

ARRATE OTERMIN

Jasokundeko Amaren Elizak berrikuntzak behar zituela eta, aurtengo negua San Sebastian ermitan eman ondoren, martxoaren lehen jaiegunean buelatu ziren orendaindarrek herriko elizara. Elizak izandako berrikuntzak asko dira. Hasiera batean, teilatua konpontzeko asmoa zenak, dorrearen zaharberritzea eta ataria guztiz berritatzeara ekarri ditu.

Horretaz gain, eliz barruan ere izan da aldaketarik eta berrikuntzarik. Elizaren tamaina handia dela eta, elizaren atzeko alde itxi eta beste gelatxo bat egin dute. Modu horretan, neguan ospakizunetara biltzen direnak, beroago eta goxoago egoteko aukera izango dute.

Hasierako aurrekontua motz

Behin, proiektua eta aurrekontua prest zirela, Orendaingo alkateak eginiko gestio baten bidez, dirua izateko aukera gertatu zen. Alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak 300.000 euro jarri zituen. Bestetik, aldiz, lanak aurrera eramateko falta zen gainerako dirua, hiru zatitan banatu zen. Zati bat Udaletxeak jarri zuen, Gotzaitegiak, bestea, eta Orendaingo elizak, azkena.

Hasierako aurrekontuak ez ziren, ordea, nahikoak izan lan guztiak egiteko. Lanak aurrera joan ahala, hasiera batean kontuan hartu ez ziren bestelako berritze batzuk egin behar izan ziren, elizako leihoak edota bigak, esaterako. Ustekabeko hauek guztiak, zorrak sortu dituzte.

Dorreak eman du lan gehien

Lanak 10 hilabetez luzatu dira azkenean. Lehenik, kanpoaldea bota eta aldamiok jarri zituzten, eta ondoren, dorrean hasi ziren lanean. Baina langileak dorrea igo zirenean, hau, uste zena baino okerrioz zegoela konturatu ziren. Ondorioz, lanak zaildu-eta uste baino denbora gehiago eman zuten bertan. Behin dorrea amaituta zegoela, teilatuan egin beharrekoak nahiko azkar joan ziren, eta baita gainerakoak ere.

Era berean, lanek izandako berezko eragozpenez gain, aipatzena da, aurtengo negua lehorretik joan bada ere, langileek teilatua zati handiena kendu zutela, euri jasa bota zutela. Gertaera honek ere, lanak luzatzea ekarri zuen.

Martin Carrera arkitektoa

Martin Carrera Aranburu arkitektoa (Beasain, 1713) izan zen Orendaingo elizaren obrei amaiera eman ziena. Elizak, XVI. mendeko ezaugarriak ditu, beraz. Garai batean Carrera arkitektoak bukatu-ko lanen ondoren, Landu eraikuntzak lekukoa hartu-eta buelatu dio elizari, berezko duen handitasuna. Orendainek, horren herri txikia izaki, hurrun bistaratu daitekeen eliza du. Ezaugarri esanguratsuen artean, kanpandorra, barruko kapitela eta Kristo ditu.

Carrerak, Orendaingo elizaz gain, Tolosako Andre Mariaren elizako bi dorretxeak eta kanpandorra, eta Ibarra eliza eta zubia egin zituen; ondare bat baino gehiago utzi zituen bailaran.



Dorreak eta kanpoaldeak, bestelako itxura erakusten dute. A. OTERMIN



Elizarrak, eskalieretatik nahiz aldapan gora igo daitezke elizara. A. OTERMIN

«Eliz ataria berritzearekin, elizara sartzeko bidea erraztea lortu dugu»

JOSE INAZIO EGUZKITZA › Parrokoa

Orendain » Berrikuntzak egin dituzte elizan, eta jendea oso gustura dago, batik bat, atarian egin diren aldaketekin.

ARRATE OTERMIN

Orain 9 urte etorri zen Jose Inazio Eguzkitza (Aia, 1956) parrokoa Orendaingo elizara. Bera Orendainera etorri aurretik ere, bazen eliza berritzeko asmoa; baina orain urte batzuk izandako euriteek eta haizeteek egindako kalteen ondoren, erabaki zuten elizaren teilatua konpondu, eta beste berrikuntza batzuk egitea. Gaur, Orendaingo elizan aritzeaz gain, inguruko beste 7 elizetan ere parroko da Jose Inazio. Baina ez da bakarrik ari lanean, baditu inguruan makina bat laguntaila ere.

Noiz hartu zenuten eliza berritzeko erabakia?

Urteak zeramatzan elizak egoera txarrean, eta hona iritsi nintzeneko, bazen eliza berritzeko kontua. Gainera, teilatua oso ahul zegoen, eta orain dela lau urte, izugarriko euriteak eta haize boladak izan ziren. Ondorioz, teiltu gehiena haizeak eraman eta teila mordo bat lurrera erori ziren. Eta teila-



A. OTERMIN

tuak kalte handiak izan zituen. Orduan, seguruarengana jo genuen. Baina seguruak teilatua izan zuten kalteak, haizeak ez, baizik teilatua zuten egoera kaxkarra medio gertatu zela argudiatu, izandako kalteen zati txiki bat ordainduko zutela esan zuten. Gertatutakoaren ondoren, konponetak aurrera eramateko proiektua eta aurrekontua prestatzen hasi ginen. Teilatua kontu honekin, berriz, teilatua gain, dorrea ere ez zegoela ongi ikusi zen. Azkenean, elizaren teilatua, dorrea eta eliz ataria bera ere berritzea erabaki hartu genuen. Azken lan honekin,

elizara sartzeko bidea erraztea lortu dugu.

Barrutik berrikuntzarik...?

Barrutik, bere garaian, auzolanean, lurreko egurra egina zegoen; eta orain, egurra lixatu, garbitu eta berniza eman zaio. Horretaz gain, korupea itxi dugu, negu garaian, epeltasunean, txoko txiki horretan ospakizunak egiteko.

Herriko jendea gustura?

Badirudi gustatu zaiela. Eliza handia bada ere, lehen ez zen antzematen. Elizak zuen egiturarengatik ere, ez zirudien dorreko harria ere horrelakoa zenik. Gaur kanpoaldean geratu den arkupea, leku

itxiaz, eta zakarguztiak pilatzen ziren zoko bat besterik ez zen. Orain, berriz, beste itxura bat du elizak.

Elizan, teknologia berrien inguruan, berrikuntzarik bada?

Gaur egun, ospakizunetan erabiltzen den teknologia-edo, kanoia da. Kanoian bidez, kantuen letrak edota irudiak bota ditzakegu. Esaterako, pasioa edo nekaldia irakurtzerako orduan, irudi batzuk botatzen joateko-eta, erabiltzen da. Bestalde, elizetan sartzen ari den teknologiarik berriena, megafoniarena da. Entzuteko tresmerien inguruan berrikuntzak egiten ari gara. Adibide bat jartzearen, Albizturgo megafonia izan da berritzen azkena; eta orain, bertako megafonia, erabat digitala da. Megafonia berria jarritakoan, teknikoek neurketa batzuen bidez, soinu barra bat ezartzen dute. Honekin, eliza guztitan berdin-berdin eta aldi berean entzuten da ahotsa. Teknologia berri hau, ongi etorria da gurean, izan ere, elizetan sortzen den oihartzuna desagertu egiten da, eta garbi-garbi entzuten.

Eta zure egunerokotasunean, teknologiak badu tokirik?

Ordenagailua, nahigabe sartu zaigu-eta, niretzat, halabeharrez eraman eta erabili beharrekoa zait.

Elkarrizketa

SABRINA OTEGUI ETA ELVA MOCOROA | Tolosajatorriko argentinarrak

«Tolosara joatea oso gogorra eta hunkigarria izan zen»

Euskara » Hainbat argentinarrak euskara ikasten ari dira Maizpide eskualtean, gero Argentinara beraien irakasteko; horietatik bik tolosar jatorria dute.



Sabrina Otegui eta Elva Mocoroa, Maizpide eskualteko ikasleak.

litiko eta ekonomikoengatik. Argentinan ezkondu ziren. Buenos Airesen joan ziren, eta Cordobako probintzian kokatu ziren. Hiru seme izan zituzten. Nire birratona eta bere semeak geratu ziren Argentinan, hau da, nire aitona eta bere anaia. Nire birratona hil egin zen, eta Tolosara laperatu zuten. Ze erlazio izan duzue euskararekin eta euskal kulturarekin? E.M. Nire amonak euskaraz zehar zidan txikitzen. Argentinan zira, baina euskaldunen alaba zen. Ez diru gogoratzen ze abesti ziren, oso txikiak bainintzen. Nire amak kontatu zidan nire amonak euskarazko abestiak kantatzen zizkidalako, ni ez bainintzen gogoratzen. Nire aitak ez zekien euskaraz, baina berak euskal kulturarekin zuzinduta. «Gu ez gara espainiarrak, gu euskaldunak gara», esaten zidan. Nire amonak bai, bazekien.

«Nire amak kontatu zidan amonak euskaraz abestiak kantatzen zizkidalako»

«Nik ez dut harremanik izan nire etxean euskararekin, nire kabuz hasi nintzen ikasten»

«Nik ez dut harremanik izan nire etxean euskararekin, nire kabuz hasi nintzen ikasten»

S.O. Niri baez dut harremanik izan. Etxean beñ ez nintzen nuen vasco hitza. Nire aitona *El Vasco* deitzen zidan. Baina, ez nekien zer zen euskara, Euskal Herria. Nire aitak ere ez zekien. **Nolan hasi zineten euskara ikasten?** E.M. Gartzelaria, latina eta literatura irakastea izan naiz. Orain dela lau urte hasi nintzen euskara ikasten. Hasi nintzenean ez nekien ezta ogur ere esaten. Cordobako Gure Txokoa Euskal Etxera hasi nintzen guturturen. 2004an La Plazako barnearekin egon nintzen. Internet bidez ikasten egon nintzen. Eta egun hemen, Lazkaoan, Maizpide barnearekin.

PLATZABURU-I. TERRADILLOS

Hizkuntza gurtina da, bai, baina mugak ezohar izan dira euskarak. Arrazoi bat edo besterengatik, askok erabakitzen dute Euskal Herriko kumpu euskaraz ikastea. Argentinan da lurralde horietako bat. Euskara ikastea, ordea, irakatsiko dizun nor bait behar duzu, eta horretan ari dira, asken hilabete hauetan Argentinatik etortziko 23 lagun, hau da, euskara ikasten gero hara bueltatzen, bertako irakasteko. Lazkao Maizpide barnearekin ari dira horretan, eta badira tartean, tolosar jatorria dutenak ere: Sabrina Otegui (Bergamino, Argentina, 1973) eta Elva Mocoroa (Cordoba, Argentina, 1944).

Zuen abasoak, beraz, Tolosaldekoak ziren.

Sabrina Otegui. Nire birratona Tolosaldeko zen, eta badirudi ikaslearen bat edo izan zuela bere atarian lagun batekin edo, eta horregatik joan zen Argentinara, arrazoi pertsonalengatik. Ez dakit ziar noiz, XIX. mendean hasiera aldera. Hasieran Buenos Airesen, probintzian, egon zen, ez dakit zein herrian, eta gero Pergaminon finkatu zen birratona. Han ostu zuen familia. Ezkondu eta 13 seme-alaba izan zituzten. Gero, nire seme Tolosara itzuli ziren bertan aitonekin lan egitera. Bat hil egin zen. Interesgarria da, izan ere, orain Euskal Herria bizirik duten nire lehengusu edo lehengusu txikien aitona argentinarra da. Normalean gik han, Argentinan, ditugu aitone-amona euskaldunak, ez da ohiko hemen Euskal Herriari aitona argentinarra izatea.

Elva Mocoroa. Nire aitona argentinarra zen. Nire birratona eta birratona ziren tolosarrak. Gerra Karlistak eta gero 1870 urte aldera Argentinara joan ziren arazoak po-

ziren zikindua eta elus-entzumenekoak ematen zirkion. Beraz, ez nuen inoiz entzun euskarazko hitz bat etxean, nire kabuz hasi nintzen.

Nola iritsi zitzaizuen hona, Lazkaoa etortzeko aukera? S.O. Duela zazpi urte sartu zen Eusko Jaurlaritzak bultzaturiko Argentinan Euskaraz proiektuaren baitan gaude. Argentinan euskaraz irakastea irakasteko formatza da helburu ekimen honek. 23 lagun etorri ginen, batzuk dagoeneko Argentinara bueltatu dira, eta zortzi geroetako gara etakenera arte.

23 argentinarrak etorri zineten. Adin guztietakoak? E.M. Gurtzen 22 urtekoa, eta heldun 69 urtekoa.

Ikastarna bueltatzen, beraz, han euskara irakasteko duzue? S.O. Gehienek dagoeneko euskara irakasten dugu. Ni, esaterako, orain dela 3 edo 4 urte hasi nintzen irakasten.

E.M. Ni ere euskara irakasten dut Argentinan.

Zer moduz moldatzen zarete? S.O. Nik oso ondo pasatzen dut. Dena den, batzuetan zaila izaten da, izan ere, euskara ikastea ditoreen askok, gertutasunarengatik edo, zuzen dute gure izenaren antzeko izango dela eta hasten zarenen lehenengo esaldiarekin erretan galderak egiten hastendira.

E.M. Nik ere ondo pasatzen dut. Baina, esan behar da oso zaila dela ikastea eta ikastea.

Jendeak badu orduan Argentinan euskararekiko interesa? E.M. Euskal Etxetan bai, Buenos Airesko Euskal Etxean, esaterako, oso handia da, bertan jende ugari bizi delako, eta hor jendea bilzen da euskara ikastea. Nire Euskal Etxean, bertan, Cordobako, txikiak da, eta 20 ikasle inguru ditugu une honetan. Gaurte asko amintzen dira, eta probintzia askotatik etortzen dira, gainera. Euskararekiko interesaz gain, euskal kulturarekin erlazioa duenarekin ere badago: txistu, tsalaparta, musika, danza... ikastarok daude.

S.O. Une honetan 50-60 ikasle inguru egongo dira Buenos Airesko Euskal Etxean. Hasturte hasieran jende gehiago ematen du izana, baina asko bidetzen gertatzen dira, oso zaila iruditzen zaizkioke, beste

batzuk euskara eskolatik terapia bezala ere hartzen dituzte.

E.M. Bai, hori oso ohiko izaten da. **Terapia bezala?** S.O. Bai, asken finetan laguntza eskatu sortu dira. Badago talde bat orain 5 urte hasi zena ikasten, eta duela 3 urte hasi ziren dirua auzeretan Euskal Herria etortzeko. Euskaraz taldea etorri zen hona, eta Euskal Herri osoa zeharkatu zuten. Ez zuten elkar ezagutzen eskolan hasi aurretik, eta begira. Oso polita da.

Tolosara bidaltu zenutenean zer sentitu zenuen? E.M. 2005ean joan nintzen Tolosara familieren baserria izandakoa ilusterra. Han nagusiaren hiritz egin nuen, eta posible da lehengusak edo lehengusu txikiak izatea. Siko hunkin nintzen. Tolosara laperatu zuten nire aitona, eta hori

oso hunkigarria izan zen niretzat. Berehilekiaz joan nintzen.

S.O. Nire aita egon zen hemen bere semeekin duela 10 urte edo. Ni ez izan nintzen. Nire aita hil zen, beraz, oso gogorra izan zen niretzat. Martxoan hil zen eta ni urrian etorri nintzen. Hasieran ez nuen Tolosara joan nahi, baina gero pentsatu nuen damutu egingo nintzela, eta indarrez bete eta joan egin nintzen. Oso hunkigarria izan zen. Nire aita ez zen abertzale zutsua, baina, hori bai euskaldun zart zuen bere burua, oso harro sentitzen zen euskaldun izateaz.

«Argentinan, euskararekiko ezezik, euskal kulturarekiko ere badago interesa»

«Gogorra izango da Argentinara bueltatzea, oso gustura baizkade, baina gogoa ere badugu»

Nolako da zuen eguneroko bizimoda euskaltegian? E.M. Ez gaude barnearekin. Lazkao bizi gara familia desberdinetan. Barnearekin euskolara etortzen gara, eta bertan jaten dugu, baina gero etxera josten gara. Oso gustura gaude. Oso harreman ona dugu ikasleekin, erabat integratuta sentitzen gara.

S.O. Gure hemengo familiek oso pozik bizi gara. Eta ikasleekin ere oso ondo.

Buenos Aires bezalako hiri handi batek Lazkao bezalako herri txiki batera. Gustatzen zaituzte?

E.M. Oso ondo dago, oso polita da herria.

Lazkoatik aterako zarete herri gehiago ezagutzera, ezta? E.M. Asteberrietan normalean txangalo egiten ditugu Euskal Herri zehar. Bilbon izan gara Guggenheim biseratzen, Donostian, Iruñean... agenda bete dugu.

Zerk hartu zu zaituzte euskal kulturarekiko? S.O. Han idazleak, poetaak, dago. Tabernetara joan gara, eseri, kafetokoa hartu eta hitz egiten dugun... ez gara batetik beste batera. Probatu dut poetaarena edo gaueko pararamatena, baina segituan neketu naiz. Gira osoan zuzik egotzen oso neketua da.

E.M. Janaria desberdina da. Gustatzen zait, baina oso astuna izan daiteke. Frizjeren kasuan, adibidez, Argentinara buelta nolako izango da?

S.O. Gogorra da bueltatzea, baina lagunak egiten dituzte, hilabete asko igarotzen dituzte... Baina, etxera etxera da. Galdetu izan didate hemen gertatuko ote nintzatekeen, baina, esan behar, etxera etxera da.

E.M. Hemen oso gustura egon arren, Argentinara bueltatzeko gogoa ere badut, nire lurraldea nire lurraldea baita. Baina gogorra ere bada, noski.

Han zela da zuen eguneroko bizimoda? S.O. Semilogia irakasten dut, eta www.usualtura.com web orrian korrespondentia bezala egiten dut lan. Euskaraz ere irakasten dut.

E.M. Juhilatuta nago. Irakastea izan nintzen unibertsitatean. Euskal Etxean aritzen naiz eskolatik ematen. Bertan lehendakariordea naiz ni. Euskaraz irakastaren doan egiten dugun zerbitua da, izan ere, han ezin da euskaraz irakastetik bizi.

Jarrapenik al du zuen familian euskaraz irakastean? E.M. Nire semeak ikasleak euskaltzarrak dira. Momentuz ez, baina agian hemendik urte batzuetara hasiko da euskara ikasten, norik dakit.



Tolosaldeko Euskal Eskola Publikoa
Batxilergoko Irakasgaien Eskaintza Osoa
BATXILERGOAK
Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak
943 45 13 87
www.tolosaldeko.eusko.gob.es

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Hilaren 8an, ostegunean, 18:00etan
ANTTON IZAGIRRE eta HEKTOR ESPIN
alkate ohia eta hauetسي independentistarekin elkarrizketa digitala
HITZAren erredakzioan izango dituzue zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidali ditzakezue.
www.tolosaldeko hitza.info webgunean



Mendi ibilaldiaren ondoren hamaiketako eta solasaldia izan zuten. ESTI EZEIZA

Gaur hasiko diren jaiei ongiatorria egin diete mendi ibilaldiarekin

Orexa » Gaur oilarren jaitsierarekin festei hasiera emango diete; 21:00etan, sardina jatea eta bukatzeko karaokea izango dira.

NEREA URBIZU

Orexako jaiak gaur hasiko dira, eta oilarren jaitsiera arduratuko da horretaz. Aurretik jaigiroa ere izan dute orexarrek, hirugarren urtez mendi ibilaldia egin baitzuten atzo eta 40 bat lagunek parte hartu zuten bertan.

Plazatik atera eta Nafarroa alde-rako mugak ezagutu zituzten bertaratutakoek, Juanito Beristain, Joxe Malkorra eta Agerreren laguntzari eta jakinduriari esker. Herritar batek zioen moduan, «monumentua merezi dute, lan asko egin baitute herriarengatik, adibidez, garbiketarak». Ondoren, hamaiketako izan zuten tabernaren kanpoaldean denek eta eguzki-az goxatu ahal izan zuten. Haiek giroa jartzeaz ere arduratu ziren.

Gazte jende gehiago

Hirugarren urtea da mugen ibilaldia egin dutena, baina urtero diferentia izaten da: batzuetan Li-

zartza aldera egin baitute. Aurten, Begorteko bordatik aurrera egin zuten, Akullutegitik pasata eta Kartolarkaitzera iristeko. Orunbe, Sukundi, Mutriku eta Iradi ere bisitatu zituzten. Kareobiak ere ikusi zituzten gazteenek.

«Aurten iaz baino jende gehiago animatu da, gero eta gehiago dator». Horretan, hiru herritarrek adierazi bezala, «hamaiketakoak izan du ere bere garrantzia. Gainera, gazte asko etorri da, eta hauek hastea da inportantea».

Ezin dira Txino eta Juanillo aipatu gabe gelditu, Egiaokoak izanik urtero datozelako duela 12 urte inguru eta «herritarren zat baratzuri zopa prestatzen dute».

Kilometroen postua bihar

Bihar udaletxeko arkupean Kilo-metroak 2008ko postua izango da, 12:00etatik aurrera.

Gaur, festei hasiera emateko oilarren jaitsiera 20:00etan izango dute, elizatik udaletxerako bidea eginez. Ondoren, sardina jatea izango da, eta baita kale antzerkia ere. 01:00etan, Karaokea antolatuko dute. Baliteke Juanito, Joxe eta Agerre bera ere bertan kantatzen auzaltea. Batek daki... Hori ikusteko han azaldu egin behar.

tan banatuta (txukun txukun). Bi terraza 20 eta 25 metro2taoak. Lur sailarekin. 700 euro. Argazkiak: www.idealista.com webgunean. Harremanetarako telefono zenbakia: 619 34 93 85.

GALDUTAKOAK

■ **Txakurkumeak.** Border Collie txakurkume bat galdu zaigu igande goizean Errioko bidean. Lepoko gorria darama. Zerbaiten berri izanez gero, deitu 656 79 29 63 telefonora (Jon).

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Txakurkumeak.** Cocker arrazako txakurkumeak saltzen dira. Interesatuak deitu 943 67 0142 telefono zenbakira.

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Interesatuak deitu 685 22 70 58ra.

ALOKAIRUA

■ **Baserria.** Alkizan baserria alokairuan. 160 metro2 hiru solairu-

10. zortzimilakoa lortu du Pasabanek, Dhaulagiri igota

Tolosa » Berarekin batera bidelagun izan da Asier Izagirre tolosarra; «uste baino gogorragoa egin» zitzailela azaldu zuten.

ESTI EZEIZA

Daulhagiri, Himalayan kokatuta dagoen 8.164 metro dituen tontor hau Pasabanen 10. zortzimilakoa da. Hirugarrenean lortu du Pasabanek Dhaulagiri gaina zapaltzea, huts egin baitzuen 1998an eta 2001ean egindako saiakeretan. Tolosarrak atzo agertu zuenez, «uste baino gogorragoa eta luzeagoa» egin zitzaizen igoera. Gaineratu zuen, «bagenekien haizea ere 40 kilometro ordutik gorakoa izango zela, eta tarteka asko jotzen zuten. Bestalde, beldurra genuen trabesiatik gailurrerako tarte horretan elurra gaizki egongo zelako».

Al filo de lo imposible saioan botatako erronka gainditzeko lau zortzimilako geratzen zaizkio oraindik egiteko Pasabani: Shisha Pangma (8.046m.), Annapurna (8.091m.), Manaslu (8.163m.) eta Kangchejunga (8.586m.). Telebisitaio horretan agertu baitzuen, 14 zortzimilakoak egin nahi dituela.

8.000 metrotik gorako hamar gailur egin dituen lehen emakumea izan daiteke. Izan ere, Sabastian Alvaro, *Al Filo de lo Imposible*



Edure Pasabanek 10. zortzimilakoa egin du; irudian mendian gora. HITZA

ko zuzendariak agertutakoaren arabera, atzo bertan Gerlinde Kaltenbrunner tontor bera igotzen saiatu zen. Eta lortu izan balu, haren 10. aizango litzateke ere.

Pasabanekin batera, bidelagun izan da ere Asier Izagirre tolosarra. Berarentzat bigarren zortzimilakoa da. Joan den urtean, Pakistango Karakorumean dagoen Broad Peak gailurra egin zuen Pasabanekin batera. Bi hauekin batera Alex Chicon euskal herritarra, Ferran Latorre kataluniarra eta Ivan Vallejo ekuadortarra izan dira azken espedizio honetan.

Gailurrerako bidea

Taldea goizaldean abiatu zen III. kanpamentutik (tontorretik 800 metrora) eta 14:00etan iritsi ziren Dhaulagiriko gailurrera. Bertan denbora gutxi egin zuten hotz handia eta haizea eginen zuelako. Argazki batzuk atera eta irudi batzuk grabatu bezain pronto 7.400 metrotara dagoen hirugarren kanpamentura bideratu ziren mendizaleak. Jaitsi ondoren, «hotz handia pasa» zutela eta egindako esfortzuagatik bildutako nekea nabari zitzailela adierazi zuten. *Al filo de lo imposible* koek.

Gaztetxearen IX. urteurrenean egitarau oparoa prestatu dute

Anoeta » Gaur mendi martxa antolatu dute, eta gauean EH Sukarra taldea izango da kontzertuan, Gaztetxean bertan.

ERREDAKZIOA

Anoetako Gaztetxeak bederatzita urte bete ditu dagoeneko. Horregatik hainbat ekitaldi antolatu ditu honen baitan, tarteka haurrentzako ekitaldiak izanik.

Gaur mendi martxa izango da, eta sagardo dastaketa arratsaldean. EH sukarra taldearen kontzertua ere antolatu dute. Bihar, berriz, urteroko patata tortilla eta entsalada lehiaketak izango dira Gaztetxean eta ondoren hori bazkalduko dute. Ez dira bihar ere kontzertuak faltako.

Atzo ume-jolasak egin zituzten umeekin. Kalejiran gaztetxera jeitsi ziren. Gauean, berriz, bideo-emanaldia izan zen.



Atzo haurrekin egindako jolasen artean, aulki dantzan aritu ziren. NEREA URBIZU

» EGITARAUA

Gaur, maiatzak 2

■ **11:00.** Mendi-martxa; bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du eta mendian bertan bazkalduko dute.

■ **19:00.** Txupinazoa eta sagardo-dastaketa.

■ **23:00.** EH Sukarra taldea kontzertuan.

Bihar, maiatzak 3

■ **11:00.** Patata tortilla eta entsalada txapelketa.

■ **14:00.** Bazkaria.

■ **Arratsaldez.** Trikipoteoa herrian.

■ **21:00.** Afarria Gaztetxean.

■ **23:00.** Bozio, Silikonay eta DJ Bag. Bukatzeko Txirriklas jaia.



Jende asko inguratu zen atzo Larraitzera, goizean goizetik, eguraldia lagun. MAIDER DEL OLMO



Mari Jose Sardon harri-jasotzaileak 113 kiloko harria jaso zuen. M. DEL OLMO



Manuel Mendizabal idiekin, atzean umeak eramaten. M. DEL OLMO



Aralarreko larreetan animalia ugari ibili zen atzo; adibidez, honako zaldi hauek. M. DEL OLMO



Bentazaharreko Mutil Alaiak taldekoek girotu zuten goiza. M. DEL OLMO

Jende asko bildu da larreen irekieran

Gizartea » Eguzkipean igo zen ganadua atzo Aralarko larreetara, Enirio Aralarko Mankomunitateak antolatutako festan.

MAIDER DEL OLMO/ GOIERRIKO HITZA

Ume, gazte eta heldu. Denek gozatu nahi izan zuten atzoko eguna, eguzkitsua, dotorea, askoren ahotan entzun zen bezala. Jende asko inguratu zen Larraitzera, Abaltzisketa, atzo Aralarko larreen irekitzeko festara. Iaz ez bezala aurten

eguraldia lagun, jai giroa nagusitu zen goizean goizetik.

Joan deneko urteetan ohitura bilakatu da maiatzaren 1an egiten den urteroko festa. Enirio Aralarko Mankomunitateak antolatzen du, eta egun horretan ofizialki Aralarreko larreak ganaduarentzat

irekitzen dituzte ofizialki, jai giroan egin ere.

Egitarau bete-betea

Urtero bezala egitarau mardula prestatu zuten atzorako ere. Goizeko hamarretan zabaldu zituzten postuak, eta handik aurrera dena izan zen festa Larraitzen, alde guztietan baitzegoen zer ikusia: zaldiak, behorak, astoak, idiak, artzain txakurrak, ..animalia ugari zebilen Aralarko larretan, eta haien inguruan jendetza. Tradi-

zioa eta festa elkarririk helduta joan ziren. Erakustaldi ugari izan zen; adibidez, herri-kiroletan Mari Jose Sardonek ikusmin handia piztu zuen 113 kiloko harria jasota. Jexuxen Jazzapanakoak musika eta guzti bertan izan ziren giroa alaitzen. Ez ziren bakarrak izan, ordea. Bentazaharreko Mutil Alaiak taldekoak goiz osoan aritu ziren abesti herrikoiak kantatuz, jendeak lagunduta, gainera. Liburuska bat banatu zuten jendearen artean eurei kantuan lagun-

tzeko eta asko izan ziren haiek in bat eginda ibili zirenak goizean zehar.

Salbamentuko txakurrak

Berrikuntza bat ere izan zen. Aurteneko aldiz Larraitzen Euskal Herriko salbamentuko txakur taldearen erakustaldia izan zen. Erakustaldiaren helburua larrialdi edo istripu bat gertatzen den kasuan salbamenduko txakurrek egiten duten lana erakustea izan zen.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Anoeta.** Koadrilen Egunerako bazkari eta afari txartelak salgai. Izen-ematea, Itzuli edo Buztina tabernetan 7,5 eurotan.
- **Anoeta.** Herriko festetako haur danborradan parte hartu nahi dutenek udaletxean edo ikastolan eman dezakete izena, maiatzaren 7a baino lehen.
- **Ibarra.** Maiatzaren 7an Izaskungo erromerian egingo den bazkari-rako txartelak, Bizi nahi elkartearen 25 eurotan (bazkide ez direnek 30 euro).
- **Ikaztegieta.** Herri Urratsera maiatzaren 11n joateko Udalak autobusa antolatu du. Izena Udala bulegoetan eman behar da. 6 euro balio du.
- **Tolosa.** Herri Urrats-erako autobusak antolatu ditu maiatzaren 11n. Izen-ematea Galtzaundiko egoitzan izango da (8:00-13:00etara eta 16:00-20:00etara).
- **Villabona.** Villabonako Udaleko Euskara Zerbitzuak Amodiozko Gutunen Lehiaketara martxan jarri du. Lanak udaletxean entregatu behar dira.

Ikastaroak

- **Alkiza.** Ukenduak egiten ikasteko ikastaroa (intsusa, kalendula,

berbena, eta abar) antolatu dute maiatzerako, astelehenetan edo asteazkenetan Pili Otaegirekin 15 eurotan. Izen-ematea, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean (943 693930).

■ **Tolosa.** Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza ikastaroak doan Antonio Maria Labaien kultur etxean maiatzaren 13, 14 eta 15ean, 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea, Baketik (943 251005, www.baketik.org, parte-hartu@baketik.org).

Irteerak

- **Berastegi.** Basurde elkarteak XVI. ibilaldi Neurtua antolatu du iganderako, 07:00etan abiatuta, inguruko mendietan. Izen-ematea, Zelai tabernan, 630 806080 zenbakian, basurde@komunikazioa.org webgunean edo irteeran. Antolatzailea: Basurde elkarteak.
- **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak Alpeetara eta Atlasera mendi-erak antolatu nahi ditu abuztuaren. Beste bisita batzuk egiteko aukera ere izango da. Informazioa eta izen-ematea, 637 830380 telefonon.
- **Tolosa.** Harizpe jubilatuta eta pensiodunen elkarteak irteera antolatu du Atapuercara eta Burgosera maiatzaren 13rako. Izena eman

nahi dutenek 30 euro (33 euro bazkide ez direnek) ordaindu beharko dute.

- **Tolosa.** Harizpe jubilatuta eta pensiodunen elkarteak Saloura irteera antolatu du ekainaren 1etik 15era pensio osoan. Izen-ematea, elkartearen 395 eurotan (bazkide ez direnek 401 euro).
- **Tolosa.** Iturriza jubilatuta elkarteak Peñiscolarira irteera antolatu du maiatzaren 18tik ekainaren 1era 410 eurotan (bazkide ez direnek 415 euro).
- **Tolosa.** Maiatzaren 17an eta 18an asteburu pasa antolatu dute Lekunberrira. Bertako zuhaitzen eta tirolinen abentura parkera bisitatu egingo dute, piszinarra, ibilal-

diak... Prezioa 50 euro da eta izena Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul eta Zizurkileko liburuetan.

- **Tolosa.** XIV Orduko Martxarako izen-ematea, Aralarko Adiskideen elkartearen (Araba etorbidea 5) edo a.adiskideak@terra.es webgunean. Martxa hilaren 18an izango da.

Erakusketak

- **Tolosa.** Artea Oinez 08 erakusketa Aranburu Jauregian Nafarroa Oinez 08k antolatuta.
- **Tolosa.** Miren Gonzalez Goikotxearen margolari tolosararen *Zaborrontziak* erakusketa Leidor aretoa, Naturaldia jardunaldien barruan.
- **Tolosa.** Angel Arbe artistaren

Biogeometriak lanen erakusketa ikusgai dago Aranburu Jauregian.

- **Tolosa.** Jose Bach Riu margolari kataluniarren lanak Lanbroa tabernan. Paisaiak dira eta euskal gaia ere agertzen da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.


A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxe bulegoa



'121 amu' KOSTALDEA EZAGUTZEKO'
liburua

Maiatzak 10, larunbata
kartilla eta 1. kupoia
berria rekin

